

Tratu txar eta sexu erasoaren kasuetan familiar eragiteko programa abian

Erasoak jaso dituen eta erasotzailea tratatuko ditu Bizkaian garatuko den ekimenak

Gorane Agirre / Bilbo

INMACULADA LOROÑO Ongizate diputatuak atzo azaldu zenez, «orain arte gizon erasotzaileari eta emakume erasoari terapia ezberdinak eskaintzen zitzaizkien. Orain, proiektu berri honen bitartez, bikoteari tratamendu bateratua eskaini nahi zaio, arazoari errotik —familiar— helduz».

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen erdiak beren «bikotekidearekin, erasotzailearekin» bueltatzen direla azpimarratu zuen Enrique Etxeburua EHUKo Filosofia Fakultateko Pertsonalitate, Ebaluaketa eta Tratamendu Psikologiko Saileko zuzendariak. Itzultzeko arrazoi nagusiak bi direla zehaztu zuen: bitarteko ekonomikorik ez izatea eta bere bikotekidearekiko menpekotasun emozionala izatea. «Beren bikotekideaz maiteminduta segitzen dute eta gauzak aldatzea espero dute, sarritan gertatzen ez bada ere».

Orain arte emakume erasoak bakarrik tratatzen duten programak «hankamotz» gelditzen direla adierazi zuen Etxaburua. Espainian garatzen den mota honetako programa honi esker, berriz, «emakume erasoenganako aurrezaintza egiten da, erasotzailea tratatu eta arrakasta dugun heinean indarkeria hedatzea eragozten dugu-eta».

Terapia programa hauetan parte hartzeko biktimen eskariak gero eta ugariagoak diren arren, gizonezkoak erakartzeko zailtasun ugari dituztela adierazi zuen Etxaburua. Izan ere, «erasotzaileak ukatu egiten du arazoa berea dela, emakumearena dela dio. Horregatik oso garrantzitsua da gizon hauek motibatzea».

«Aukera handiagoa erasotzailea bikotekidea izateko» • Txaro Arteaga Emakundeko zuzendaria

Etxe barruko tratu txar eta sexu erasoaren kasuetan familiari laguntza psikologikoa emateko programa garatuko du Bizkaiko Diputazioko Ongizate Sailak, Emakunde eta EHUKo Psikologia Fakultatearekin batera. Egitarauaren xedea bikoteari tratamendu bateratua ematea da; izan ere, emakume erasoaren % 50 beren bikotekidearekin itzultzen dira.



Arteaga, Loroño eta Etxaburua atzoko agerraldian. XOUSE SIMAL

riak azpimarkatu zenez, «aukera handiagoa dago emakume bere bikotekideak edo bikotekide ohiak eraso, bortxa edo hil dezan, ezagutzen ez duen pertsona batek baino».

Etxe barruko indarkeria honek ondorio psikologiko larriak eragin ditzake, esaterako, egonezina, depresioa, suizidioa, isolamendua, estresak eragindako eragozpen post-traumatikoa eta droga eta alkoholaren gehiegizko kontsumoa.

Era berean, emakumearen aurkako indarkeriak ondorio se-

rioak sortzen ditu haurrengan, eta gizarte eta hezkuntza arazo handiak eragiten ditu. Ildo honetan, Emakundeko buruak nabarmendu zenez, «mutil hauek erasotzaile bihurtzeko aukera handiagoa dute, eta neskatxek erasoko dieten pertsonekin harremanetan sartzeko».

Emakumearen aurkako etxe barruko indarkeria gizarte maila guztietan gertatzen den arren, formaziorik ezak, langabeziak, alkoholzaletasunak edo familia desgaturatuak izateak eragina badutela adierazi zuen Arteagak.

Bereziki, mota honetako erasoak gizonak familiaren egoeraren kontrola galtzeko beldurra duenean gertatzen direla zehaztu zuen.

Mota honetako indarkeria pairatzen duten familientzako zerbitzua Diputazioak Mazarredo zumardian dituen aretoetan eskainiko da epe laburrean. Bertan, EHUKo Psikologia Fakultateko hiru profesionalak —emakume bi eta gizon bat— egingo dute lan, emakume erasoari zein gizon erasotzaileei programa kliniko eta terapiak eskainiz. X

Gobernuak eta Iruñeko Udalak hirigintza hitzarmena sinatu dute

■ Akordioaren bidez babes ofizialeko 500 etxe eraikiko dira 1999a bitartean

Irene Arrizurieta / Iruñea

NAFARROAKO GOBERNUAK eta Iruñeko Udalak hirigintza, zoruak eta etxebizitzak elkarrekin kudeatzeko hitzarmena sinatu zuten atzo. Akordioa 1999. urte bitartean egon da indarrean eta denbora horretan Gobernuak Nafarroako hiriburuan babes ofizialeko 500 etxebizitza eraikitzeko konpromezua hartu du.

Jakina denez, aipatu bi erakundeok aurretiaz, 1992tik 1995 bitartean, sinatua zuten arlo honetan akordio bat. Baina Gobernuak hirigintza legedian egindako aldaketen ondorioz Iruñeko Udalaren eta herrialdeko Gobernuaren artean tirabirak sortu ziren. Orduan Alfredo Jaime UPNko kidea zen alkate eta Nafarroako hiriburuko hirigintza kudeaketan hainbat irregulartasun atzeman ondoren Gobernuak zituen eskumenak kentzea erabaki zuen eta hirigintza arautzeko beste lege dekretu bat egin zuen. Hau guztia aintzat hartuz, sinatzaileen ustez akordioa oso ona da eta elkarlanerako aro berria irekitzen da. Gestio guztiak aurrerantzean gardentasun handiz egingo direla azpimarratu zuten.

Atzo izenpetutako akordioan, Iruñeko Hirigintza Kudeaketa Plana (PGOU) egun herrialdean dagoen legegria berrira egokituko da eta Gobernuak hiriburuko hirigintza arloan behin-behinerako onartutako lege dekretua aplikatuko duela adostu zen.

Akordioak helburu jakin batzuk ditu. Udalak eta Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzak egiteko zorua lortzeko ekintzak jarriko dituzte martxan. Hau aintzat hartuz, Gobernuak, Vinsa etxebizitza eraikitzailearen bidez, 500 etxebizitza eraikiko ditu Iruñean. Era berean, Alde Zaharra erabat berritu eta hobetzeko ekimen gehiago abiatuko dira eta hiriko toki jakin batzuk garatzeko laguntza bereziak emango dira izenpetu duten hitzarmenaren bitartez.

Hirigintzari dagokionez, egun Iruñean indarrean dagoen Hiri Antoietaketarako Plan Orokorra (PGOU) berrikusi eta tramitatuko du Udalak. Zoruari dagokionez, Udalak zein Gobernuak etxebizitza eta industria behar diren desjabetzeak egiteko konpromezua hartu dute. Eta azkenik, etxebizitzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak akordioak dirauen bitartean babes ofizialeko 500 etxebizitza egiteko konpromezua hartu du. X

Urtebete eta hilabeteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak EHUtik kaleratutako bost irakasleentzat

■ Iragan urrian EHUKo Leioako kanpusean istiluak sortzea eta agintariei ez obeditzea leporatu diete

ESKELAK

Vasco Press / Bilbo



Jazinta Larrañaga

Emakume fina, umil-umila sentibera eta izpia. Ingurukoek zorionean nahi zenituen ikustea. Nola eskertu zure bilobei eman diguzun guztia. Beti gurekin egongo zara, agur amama maitea.

JOSU, JON, IMANOL, GURUTZE, OLATZ, ASIER, XABIER, IÑAKI AITZIBER eta LAXIA.

Arrasate, 1996ko martxoak 1.

EHU, Euskal Herriko Unibertsitateetik kaleratutako bost irakasleentzat, urtebete eta hilabeteko kartzela zigorra eta ehun mila pezetako isuna (4.000 libera inguru) eskatu du Getxoko 3. Instrukzio Epaitegiko fiskalak. Iazko urriaren 18an Leioako kanpusean izan ziren gertaeren erantzule direlakoan egin du fiskalak eskaera hori.

Orduko hartan, Errektoretzaren debekuari kasurik egin gabe kanpusean sartu ziren bi irakasle, eta Ertzaintzak indarrez atera zituen bertatik. Sortutako istiluen erantzule eurak zirela leporatuta, EHUK salaketa jarri zuen. Gertaerak baretu ostean, ELA,

LAB eta EILAS sindikatuek «Errektoretzaren jarrera autoritarioa» salatu zuten, «beharrezkoak ez ziren neurri errepresiboak» hartu zituela argudiatuta.

Carmen Rodriguez fiskalak bi delitu egotzi dizkie Jose Luis Herrero Enrique Lopez, Jexux Mari Zalakain, Antxon Azkargorta eta Joxe Ramon Etxeberriari. «Istilu publikoak» eragiteagatik urtebete kartzelaratzeko txikia eskatu du haien kontra, eta «aginteari ez obeditzeagatik», hilabete eta egun bateko arrestatze handia eta 100.000 pezetako isuna.

EHUtik kaleratutako irakasleek aurkeztu dituzten idatzi-tan, egozten dizkieten artikulua Kode Penal berriak bertan behera uzten dituela argudiatu dute. X